

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2015EKO IRAILAREN
16A**

BERTARATU DIRENAK

Arantza Tapia andrea
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEN SAILBURUA

Ricardo Gatzagaetxebarria jauna
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna
OSASUNEN SAILBURUA

Unai Rementeria jauna
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Markel Olano jauna
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Fernando Plazaola jauna (Iñaki Goirizelaiaren ordezt)
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA

Jose M^a Gibert jauna
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Alberto García Erauzkin jauna
INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Javier Ormazabal jauna
TECNALIA-ko PRESIDENTEA

Jesús M^a Iriondo jauna
IK4-ko PRESIDENTEA

Jesús M^a Ugalde jauna
JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

José Luis San Pedro jauna
IBERDROLA-ko PRESIDENTEORDEA

Andrés Arizkorreta jauna
CAF-eko KONTSEILARI ORDEZKARIA

Fernando Querejeta jauna
IDOM-eko PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

EZ BERTARATZEKO ARRAZOIA AZALDU DUTENAK:

Fernando Cossío jauna
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Anton Pradera jauna
CIE AUTOMOTIVE-KO PRESIDENTEA

GAI-ZERRENDA:

1. Aurreko akta irakurri eta onestea.
2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kide berriei ongietorria ematea.
3. 2020 ZTBP onetsi osteko lehen sei hilabeteetan plana hedatzeko egindako jardueren laburpena.
4. RIS 3 Euskadiko hiru lehentasun estrategikoak noraino heldu diren azaltzea:
 - *Fabrikazio aurreratua*: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua
 - *Energia*: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua
 - *Bio-Osasuna*: Osasuneko sailburua
5. *Zientziaren eta unibertsitatearen arloetako ikerketa-gaitasunak* aurkeztea eta gaitasun horiek RIS 3 Euskadi estrategiarekin nola lerrotatzen diren azaltzea: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua.
6. *2016ko aurrekontu-egoera*: Ogasun eta Finantzetako sailburua.
7. Eskaerak eta galderak.
8. Hurrengo bilera.

1. Kontseiluak abenduaren 15ean egindako bileraren akta onestea

Erabakia:

“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2014ko abenduaren 15ean egindako azken bileraren akta onetsi du”

2. Kide berriei ongietorria ematea.

Lehendakariak ongietorria eman die Kontseiluan hiru Foru Aldundien ordezkari gisa sartu diren Diputatu Nagusiei.

Halaber, gutxi barru IK4 Korporazioko presidente berria Jesús M^a Iriondoren ordezkari Iñaki Aranburu izango dela azaldu du. Bide batez, eskerrak eman dizkio Jesús M^a Iriondori, egindako lanarengatik eta Kontseiluan egindako ekarpenengatik.

Erabakia:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretuan ezarrita dagoenaren arabera, ordezkari berriak Kontseiluan sartzea erabaki da, eta ordeztutako pertsonen lana eskertu da.

Sartu diren kide berriak:

*Bizkaiko Aldundiaren izenean: Unai Rementeria jauna, Jose Luis Bilbao jaunaren ordezkari
Arabako Aldundiaren izenean: Ramiro Gonzalez jauna, Javier De Andres jaunaren ordezkari
Gipuzkoako Aldundiaren izenean: Markel Olano jauna, Martin Garitano jaunaren ordezkari
IK4ren izenean: Iñaki Aranburu jauna, Jesus M^a Iriondo jaunaren ordezkari (gutxi barru sartuko da).*

3. 2020 ZTBPrek hedapenerako egindako jardueren laburpena.

Lehendakariak hitza eman dio ZTBPrek ordezkari gisa jarduten duen Jesús Peñari, eta 2014ko abenduan plana onetsi zenetik egindako jardueren laburpena azaldu du.

Plana egikaritu den lehenengo sei hilabeteetan, egindako jardueren laburpena honako hauek izan dira:

- a) Helburuak eta laneko plana ezarri dira 2015erako eta 2016rako.
- b) ZTBPrek aurreikusitako gobernantza-organoak eratu eta abian jarri dira. Bereziki, Sailarteko Batzordea eratu da. Batzorde horretan parte hartzen dute espezializazio adimentsuko RIS 3 estrategian ezarritako hiru “lehentasun estrategikoak” eta lau “aukera-eremuak” garatzeko ardura duten Jaurlaritzako Sailek.
Gainera, iragan irailaren 11n ZTBPrek jarraipenerako Erakundearteko Batzordea abian jarri zen. Jaurlaritzako, 3 Foru Aldundietako eta Eudeleko ordezkariak osatutako batzorde hori informazioa elkarrentzat trukatzeko eta hiru erakunde-mailetan egindako ekimenak koordinatzeko arduratzen da.
- c) Fabrikazio Aurreratuaren eta Energiaren arlo estrategikoetako pilotaje taldeak eratu dira, eta Bio-Osasuneko pilotaje taldea nahiko aurreratu dago.

Halaber, elikadurako, ekosistemetako, hiri-habitateko eta industria kultural eta sortzaileetako taldeak jada lanean ari dira. Lau talde horiek, aurretiazko lanak amaitu ostean, urtea amaitu baino lehen eratuko dira formalki, ekintza-planean aurreikusita zegoenez.

Hala, ZTBPan ezarritako hiru "lehentasun estrategikoak" nahiz lau "aukereremuak" jada abian daude.

- d) Gaur egun egikaritzen ari diren ikerketa-proiektuak identifikatzeko irizpideak ezarri dira. Hautaketa-prozesu elkarreragile hori gaur egun pilotaje taldeen barruan garatzen ari da. Proiekturik esanguratsuenen erreferentzia-mapa bat edukitzea da helburua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren hurrengo bileran aurkezteko.
- e) Halaber, onetsi egin da 109/2015 Dekretua, ekainaren 23koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzkoa, 2020 ZTBPan ezarritako helburu eta irizpideen arabera.

Jesús Peñak, amaitzeko, eskertu egin du parte hartzen duten sail eta eragileek egindako lana, bai eta Innobasquek Idazkaritza Tekniko gisa egindako lana ere.

4. RIS 3 Euskadiko hiru lehentasun estrategikoak noraino heldu diren azaltzea.

4.1. Fabrikazio aurreratua:

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak, Arantza Tapiak, fabrikazio aurreratuaren arloa hedatzeko eta abian jartzeko egindako ekimenak laburbildu ditu. Laburbilduta, egindako jarduera nagusiak honako hauek izan dira:

- a) 2015ko ekainaren 30ean, fabrikazio aurreratuko pilotaje taldea eratzea eta abian jartzea, hiru mailatan egituratuta: Batzorde Zuzendari bat, Batzorde Eskuordetu bat eta 12 lantalde tematiko; horiei guztiei Idazkaritza Tekniko batek laguntzen die.

Batzorde Zuzendaria parte hartzen duten lau arloetako eragile publiko-pribatuek osatzen dute; hona hemen arlo horiek: Jaurlaritza eta administrazio publikoak; Erakundea, Klusterrak eta Enpresak; Zientzia eta Teknologiako eragileak; eta tarteko beste eragile batzuk. (Innobasque eta Ikerbasque)

- b) Halaber, aurretiaz, fabrikazio aurreratuaren esparruaren barruan lehentasunezkoak diren ikerketako 8 arlo teknologikoak aurretiaz identifikatu dira. Ildo horiek pilotaje taldearen barruan berrikusi eta alderatuko dira datozen hilabeteetan.
- c) Azkenik, abian dauden proiektuak bildu dira eta proiekturik esanguratsuenak aurretiaz identifikatu dira, Jarraipeneko Sailarteko Batzordean ezarritako irizpide komunaren arabera.

Sailburuak proiekturik esanguratsuenetako batzuk adierazi ditu. Proiektu horiek pilotaje taldean alderatuko dira:

Thinking Factory; Euskaddi; Ateaaero; Graphnol; Zero eta Nanogune'14.

Proiektu horiez gain, Zamudioko Parke Teknologikoan bultzatzen ari den Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa bereziki nabarmentzen da.

4.2. Energia:

Jarraian, Arantza Tapia sailburuak prozesu berbera azaldu du Energiaren arlo estrategikoan:

- a) Energibasque 2.0 estrategiaren xedea, ikuspegia eta helburu orokorrak berrikusi dira.
- b) Energibasque 2.0 ikerketa-estrategiaren lehentasunezko arlo teknologikoak zehaztu dira.
- c) Pilotaje taldearen osaera berretsi da. Partaideak honako hauek dira: Jaurlaritza eta Agentzia Publikoak; Enpresak eta Klusterrak; eta Eragile Zientifiko eta Teknologikoak.
- d) Gaur egun abian dauden proiektuen artean esanguratsuenak identifikatu dira aurretiaz. Aurretiazko hautaketa hori pilotaje taldeak alderatuko du, behin betiko balioztatzeko. Sailburuak adibide gisa gaur egun abian dauden proiekturik esanguratsuenetako batzuk aipatu ditu: Azkarga proiektua; Marinel ekimena; Mainwind; Tcoff, Energigune'14 eta Nanogune'14.

Halaber, Fabrikazio Aurreratuko Zentro Eolikoaren eta Oil&Gas sektoreko hornitzaileen plataforma bultzatzeko Petronor-Repsolekin egindako proiektuaren garrantzia azpimarratu du. BIMEP proiektua eta Eskoziarekin batera Euskadi buru duen Europako Vanguard ekimena, nabarmendu beharreko beste bi proiektu estrategiko dira.

4.3. Bio-Osasuna:

Jon Darpon sailburuak hirugarren arlo estrategikoan, Bio-Osasunean egindako lanak azaldu ditu.

Laburbilduta, honako jarduera hauek egin dira:

- a) Osasunaren arloko ikerketako eta berrikuntzako estrategia lantzea. Lanek aurrera egin dute, eta urte hau amaitu baino lehen estrategia aurkeztuko da. Estrategiaren helburua pazienteen osasuna hobetzeko ezagutza sortzea eta ekonomiaren garapenean laguntzea da.
- b) Bio-osasunaren strategiako lehentasunezko arloak eta ikerketa-ildoak aurretiaz hautatu dira, honako hiru irizpide hauek oinarri hartuta: 1. Gaitasun zientifiko teknologikoak, osasun-gaitasunak eta enpresa-gaitasunak; 2. Osasunaren arloari eragiten dioten munduko makrojoeren bilakaera eta 3. Europar Batasunaren orientabide-esparruak eta finantzaketa-programak.

Irizpide horietan oinarrituta hautatu dira pilotaje taldean alderatuko diren ikerketako sei arlo zientifiko-teknologikoak.

- c) Gaur egun abian dauden proiekturik esanguratsuenak identifikatzeari dagokionez, sailburuak aurretiaz hautatutako 25 proiektuko zerrenda aurkeztu du, oinarrizko

lau irizpideren arabera; hona hemen irizpideak: 1. Bikaintasun zientifiko-teknologikoa eta berrikuntza-maila; 2. Gaitasunak I+G+b katean integratzea; 3. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-maila, eta bereziki osasun-sistemaren parte-hartzea eta 4. Osasun-, gizarte- eta ekonomia-eragina.

Aurretiazko zerrenda horrez gain, bi programa espezifikoren informazioa aurkeztu du: osasunaren esparruan enpresa-berrikuntzako jarduerak sustatzeko INNOSASUN programarena eta *erosketa publiko berritzaileen* programarena; azken horri dagokionez, Osakidetzaren barruan erosketa publiko berritzailearen bulego bat abian jarri da.

- d) Gobernantza erakundeei dagokienez, lanean ari dira Bio-osasuneko pilotaje taldea diseinatzen. Pilotaje talde horretan, Jaurlaritzako hiru sailek osatutako Zuzendaritza Batzordea planteatzen da; hona hemen sail horiek: Osasuna; Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura.

Halaber, pilotaje taldean sartuko dira teknologia-elkarteak, osasun-ikerketako erakundeak, Euskampus, Osakidetza eta SPRI, eta horiez gain Biogune, Biomagune, Bio fundazioa eta euskal bioklusterre.

5. Zientzia-sistemak espezializazio adimentsuko RIS 3 euskal estrategian egindako ekarpena.

Jarraian, Lehendakariak hitza eman dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, Cristina Uriarteri. Sailburuak oinarritzko ikerketako gaitasunei eta unibertsitateko talde sendotuei buruzko azalpena egin du, eta horiek RIS 3 estrategian egin duten ekarpena ere aipatu du.

Bereziki, alderdi hauek azaldu ditu.

- a) Ikerketa zientifiko eta unibertsitate-ikerketa osoaren baliabide eta emaitza gehienak fabrikazio aurreratuaren eta osasunaren esparruetan biltzen dira. Nabarmendu duenez, oinarritzko ikerketan erabilitako 91 milioietatik, 45 milioi – gutxi gorabehera % 50– kanpoko finantzaketari dagozkio.
- b) Euskal unibertsitateetako unibertsitate-ikerketako talde sendotuen sistema, Oinarritzko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroekin (BERC) batera, eta Ikerbasqueren ekarpenarekin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren zerbitzurako tresna ahalsua dira, eta garapen teknologikoko eta ikerketa aplikatuko proiektuen oinarria dira.
- c) Jarraian, adibide gisa, prestigio handiko ikerketa zientifikoko eta unibertsitate-ikerketako talde eta zentro nabarmen batzuk aipatu ditu, ez soilik estatukoak eta Europakoak, baizik eta nazioartekoak ere. Bikaintasuneko oinarritzko ikerketaren esparruan "who is who" delakoa aurkeztu du, eta egiteko bidean dauden ikerketa-proiektu nagusiak eta proiektu horien buru diren ikertzaile nagusiak ere aurkeztu ditu.

Beste alde batetik, sailburuak esan duenez, azpiegitura zientifiko-teknologikoen mapa amaitzen ari da, eta Kontseiluaren hurrengo bileran aurkeztuko da.

Azkenik, sailburuak bereziki aipatu du kultur eta sormen industriaren estrategiaren garapena. Orain, lanean ari dira bi pilotaje talde diseinatzen eta ildo estrategikoak definitzen. Bere ustez, estrategia horren arrakastaren gakoa ekonomiaren garapen sailarekin batera lidergo konpartituaren pean egindako lana da. Halaber, bere ustez, kultur eta sormen jarduera horiek hiri izaera dutenez eta "lurraldeari atxikita" daudenez, hiru hiriburuekin eta hiru Foru Aldundiekin elkarlan estuan aritzea beharrezkoa da. Ildo horretan, kultur eta sormen industriak aukera-eremu gisa abian jartzeko urte amaierara arteko jardueren kronograma aurreratu du.

Ondorioa:

Lehenago aurkeztu diren azalpenetan oinarrituta, Kontseiluari gogoeta hau proposatu zaio (*):

"Kontseiluak balorazio oso positiboa egiten du 2014ko abenduan onetsitako 2020 ZTBPren hedapen eta burutzapenaren lehenengo sei hilabeteetan egindako lanari buruz. Halaber, Jaurlaritzako sailak eta inplikaturako gainerako erakunde publiko nahiz pribatuak animatzen ditu hasitako bidetik jarraitzera eta elkarlaneko eta baterako laneko lotura estuagoak ezartzera, ZTBPren apurkako ezarpena arrakastatsua izan dadin".

6. 2016ko aurrekontu-egoeraren aurrerapena

Ogasun eta Finantzetako sailburu Ricardo Gatzagaetxebarriak ekitaldi honen amaieraren aurreikuspenak azaldu ditu, eta 2016ko ekitaldirako aurreikusitako egoera aurreratu du. Egoera horren gainean aurkeztuko da gaur egun egiteko bidean dagoen datorren urteko aurrekontua.

Egiaztatu duenez, aurrekontuen aldetik zailtasunek irauten dute egoera ekonomiko orokorraren ondorioz eta aurrekontu-oreka lortu arte defizitaren apurkako murrizketan oinarritzen den Europako gobernantza ekonomikoko ereduaren ondorioz.

Gobernantza eredu horretan oinarrituta, Euskadik defizita 0,4 hamarreko murrizteko konpromisoa dauka, 2016rako gaur egungo % 0,7tik % 0,3 igarota (gastu-ahalmena 264 milioi euro murriztea dakar horrek). Gainera, jada konprometitutako gastu jakin batzuen bilakaera kontuan hartu behar da.

Horrek guztiak esan nahi du aurrekontu aldetik zorrotasunez jokatzeko jarraitzea beharrezkoa dela. Hala ere, eta muga horien barruan, Jaurlaritzak ahalegina egingo du ikerketako eta garapeneko programen finantzaketa iraunarazteko, etorkizunerako gure apusturik sendoena I+G baita.

Ondorioa:

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren azalpenean oinarrituta, honako gogoeta hau proposatu zaio Kontseiluari:

"Kontseiluak badaki aurrekontu-oreka iraunarazi behar dela eta defizita murrizteko konpromisoari eutsi behar zaiola, eta Jaurlaritzari bultzada eman nahi dio, muga

horien barruan Euskadirentzako etorkizuneko estrategia gisa ikerketaren aldeko lehentasunezko apustua manten dezan”.

7. Eskaerak eta galderak

Innobasque-ko presidentek, Alberto Garcia Erauzkin jaunak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea egingo dela azaldu du. Inaugurazioa azaroaren 2an izango da, eta Kontseiluko kideei inaugurazio-saioa joateko gonbidapena aurreratu die. Gonbidapen hori formalki egingo du geroago.

8. Hurrengo bilera

Lehendakariak gogora ekarri du urtean ohiko bi bilera egiteko konpromisoa. Horri dagokionez, abenduaren 15ean 16,00etan hurrengo bilera egitea proposatu du. Horretarako, dagokion deialdia igorriko da.

Aztertzeko beste gairik ez dagoela, 13:55ean bilera amaitu da.

() Gogoeta horiek Erabaki bihurtuko dira Kontseiluko kide batek ere eragozpenik azaltzen ez badu Kontseiluaren hurrengo bileran Akta onesterakoan.*

Jesús Peña Martínez

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA